

KONTROL MOZIOA

“Irurak kaleko arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko” izeneko proiektua dela-eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko uztailaren 15ean Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko irailaren 11n, Tokiko Gobernu Batzarrean hau onartu zen:

- Udaleko Bide Publikoetako Zerbitzuak idatzitako “Irurak kaleko arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko” izeneko proiektua onartzen da.
Idatzitako proiektuak 149.293,74 €-ko aurrekontua du, BEZa barne (123.383,26 € + 25.910,48 € %21eko BEZarenak) eta 2,5 hilabeteko exekuzio-epea aurreikusten du.

Proiektuaren bidez Irurak kaleko 1, 3, 5 eta 7. zenbakietako zein Koruko Andre Maria kaleko 27. zenbakiko irisgarritasuna hobetuko zuten, eta bi hilabeteko epean egin beharko zuten.

Gaur egun bizilagunek arkitektura oztopo ugari dituzte beraien etxebizitzetara iristeko. Proiektu honen arabera, espaloiak berrituko dituzte eta etxe atarrietara iristeko bideak hobetuko dituzte irisgarriak izateko.

Proiektua gauzatu ahal izateko, bizilagunek haien jabetzako guneei erabilera publikoa ematea baimendu dute.

Proiektua onartuta, lanak esleitzea falta zen obrari hasiera emateko. Gobernu batzordeak adostu bezala, bi hilabete eta erdi beharko ziren lanak bukatzeko.

Orduko Bide Publikoetako zinegotzi Miguel Angel Diezek 2019ko urtarrila edo otsailerako obrak bukatuta egotea aurreikusi zuen.

Uztailaren 15eko Gune Publikoetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren erantzunaren arabera, hirigintza-txostena oraindik egiteko dago eta hori gabe ezin da esleipenik egin. Ondorioz hori izan da proiektua atzeratzearen arrazoia. Ez dugu ulertzen zer dela eta proiektua onartu zenetik ez den txostenik egin, dagoeneko 11 hilabete pasatu direla kontuan hartuta.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Irurak eremuko bizilagunen mugikortasun-beharrak kontuan hartuz eta aurretik esan zitzaiena betetze aldera, lehenbailehen gauza dezala "Irurak kaleko arkitektura oztopoak egokitzeko eta lurzorua berritzeko" proiektua.

Donostian, 2019ko uztailaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia